



19-07-10ean instalatutako bertsioren aldaketak

Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan Profesionalen Laguntzarako Zerbitzuarekin (PLZ).

BERTSIOAREN BERRIKUNTZAK

Profesional guztientzat

La nueva versión de la aplicación incluye diversos cambios a tener en cuenta, como pueden ser cambios en el diseño a la hora de mostrarse algunas ventanas de la aplicación, o al abrir y guardar documentos. A continuación, se detallan las novedades más destacables.

Nabigatzailean instalatutako ziurtagiriak

Aplikazioak nabigatzailean instalatutako ziurtagiriak erabiltzeko aukera ematen du saioa hasteko eta sinadurak egiteko.

Sinatu beharreko atxikitako dokumentuak hautatzeko aukera

Izapide-idatziak aurkezterakoan, aplikazioak “Sinatu” izeneko zutabea erakutsiko du atxikitzen den dokumentu bakoitzaren ezker aldean, eta, besterik adierazi ezean, zutabea markatuta egongo da. Atxikitako dokumentu bakoitzari dagokionez, zutabean adierazi ahal izango da ea dokumentua sinatu nahi den JustiziaSip bidez bidaltzerakoan. Check-a markatuta baldin badago, atxikitako dokumentua sinatu egingo da: markatuta egongo ez balitz, ez da sinatuko.

PIN kodearen araketa

Bertsio hau iritsi arte, ordenagailua konfiguratu zitekeen PIN kodea aratu/gordetzeko; horrela aplikazioak ez zuen kodea une oro eskatzen. Bertsio berriak ere aukera hori ematen du, baina horretarako urratsak desberdinak dira. Informazio hori “[JustiziaSip-era sartzeko zure ekipoa konfiguratu ezazu](#)” atalean dago eskuragarri, Profesionalen Estranetaren sarbide-webgunean.

Jakinarazpenak deskargatzea

Jakinarazpenak .zip formatuko fitxategi konprimituan deskargatuko dira. Deskarga burutzerako unean, aukera ezberdinak daude erabilitako nabigatzailearen arabera (ireki, gorde, gorde honela, ireki eta gorde...)

Idatzien aurkezpena

Izapide-idatziak aurkezterakoan, aurkeztu beharreko dokumentuen arabera aplikazioak ziurtagiria hautatzeko eskatuko du hainbat alditan. Erabilitako osagarri berriekin, beharrezkoa da eragiketa hori jarraitzea EKS (Egiaztapen Kode Segurua) sinatutako dokumentu bakoitzean irudikatzen.